

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Busturiko Udala****2020rako ordenantza fiskalak**

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/05 Foru Arauetako 16.4. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 70.2. artikuluan ezarritakoa betetzeko, jakinarazten da eranskinean adierazten den Ordenantzen aldaketaren aprobazioari buruz Udal honek 2019ko urriaren 31ko batzarraldian hartu zuen behin-behineko erabakia behin betikoa bihurtu dela, jendaurreko erakusketa aldian erreklamaziorik aurkeztu ez delako.

Busturian, 2019ko abenduaren 28an.—Alkatea, Aitor Aretxaga Telletxea



I ERANSKINA
**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN
ZERGA-ORDENANTZAREN**

VI. Zerga-kuota

8. artikulua

1. Zerga honetako kuota osoa zein den zehazteko, zerga-oinarrian karga-tasa ezartzean lortzen den emaitza hartu beharko da kontuan.
2. Kuota likidua kalkulatzeko, berriz, kuota osotik kendu egin behar dira ordenantza honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritako hobariak, halakorik aplikatzerik badago.
3. Hiri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa %0,08164koa izango da.
Nolanahi ere, hiri-erabilerengatik karga-tasa bereizi hauek ezarriko dira hiri-ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera:
 - Industria-erabilerarako (I) karga-tasa %0,172koa izango da.
 - Gainerako erabileretarako, bizitegi-erabilerarako (V) eta beste erabilerak batzuetarako (Y) izan ezik, karga-tasa %0,044koa izango da.
4. Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa %0,1ekoa izango da.